

Camara

Gipuzkoako Ganbera

**GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA
NABIGAZIO GANBERA OFIZIALEKO GOBERNU-ORGANOAK
BERRITZEKO HAUTESKUNDE-PROZESUA**

**OINARRIZKO INFORMAZIOA
HAUTESKUNDE-ERROLDA ERAKUSTEKO FASEA**

2025EKO ABENDUA

AURKIBIDEA

- 1. MERKATARITZA GANBERAK**
- 2. GIPIZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIO GANBERA OFIZIALAREN GOBERNU-ORGANOAK**
- 3. HAUTESKUNDE-PROZESUA**
- 4. ARAUDIA**
- 5. GIPIZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIO GANBERA OFIZIALAREN HAUTESKUNDE-ERROLDA**

ERANSKINAK

- HAUTESKUNDE-EGUTEGIA**
- KORPORAZIOKO ERROLDAREN EGITURA TALDEKA ETA KATEGORIAKA**

1. MERKATARITZA GANBERAK

Merkataritza Ganberak, euren ibilbide luze eta oparoan, aise egiaztatu dute funtsezko elementua direla ekonomiaren sustapenean eta enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan. Ganberen helbururik behinena merkataritzaren, industriaren, zerbitzuen eta nabigazioaren interes orokorren defentsa da eta, halaber, enpresei zerbitzuak eskaintzea, batez ere ete-ei eta mikroete-ei, horien lehengoratze ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzearen ondoreetarako.

Legeak ezartzen du Merkataritza Ganberak zuzenbide publikoko korporazioak direla eta euren helburuak betetzeko nortasun juridiko osoa dutela. Halaber, Administrazio Publikoen kontsulta-organo moduan egituratuta daude, lortu nahi dituzten interes pribatuak gorabehera.

Enpresa guztiak Ganberen erroldan inskribatuta egongo dira eta, ondorioz, enpresa horiek izaera orokorreko zerbitzuetara irits daitezke eta Ganberen Gobernu-Organoetan parte har dezakete. Horrek ez die enpresei inolako obligazio ekonomikorik eragiten.

Ganberen jardueren finantzaketa ematen dituzten berariazko izaerako zerbitzuen prestazioaren, administrazio publikoekiko hitzarmenen eta enpresen borondatezko ekarpenen bidez gauzatzen da.

Ilido horretatik, Ganberak erakunde gardenak dira eta argi eta garbi sarreraren eta gastuen kontrol-araubidea indartzen duten zaintza-mekanismoak dituzte.

Ganberen Gobernu-Organoak Osoko Bilkura, Batzorde Exekutiboa eta lehendakaria dira.

Osoko Bilkura Ganberen gobernuko eta eskuordetzako organo gorena da; gutxienez 10 kide edukiko ditu eta gehienez 60. Kide horien agintaldia lau urtekoa izango da.

Osoko Bilkurako kideen bi heren Ganberetako enpresa guztien eskuordeak izango dira, sektore ekonomiko guztietan duten ordezkartzaren arabera.

Halaber, Osoko Bilkuran Ganberaren esparruko bizona ekonomikoan ospetsuak eta aintzatetsiak diren pertsonak daude; pertsona horiek adierazgarrienak diren sektore arteko eta lurraldeko enpresen-antolakuntzek eta borondatezko ekarpenik handienak egiten dituzten enpresetako eskuordeek proposatuta egoten dira.

2. GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIO GANBERA OFIZIALEKO GOBERNU-ORGANOAK

Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera Ofizialaren (aurrerantzean, "Gipuzkoako Ganbera") kasuan Osoko Bilkurak hirurogei (60) kide ditu, Talde hauetan banatuta daudenak:

- **A) TALDEA:** Gipuzkoako Ganberari atxikita dauden enpresa guztietako berrogei (40) eskuorde. Pertsona horiek sufragio aske, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez hautatuko dira hautesleen artean. Hautesleak Taldeka eta Kategoriaka sailkatuta egongo dira.
- **B) TALDEA:** Gipuzkoako Ganberari dagokion esparruko bizona ekonomikoan ospetsuak eta aintzatetsiak diren enpresetako zortzi (8) eskuorde. Pertsona horiek sektore-artean eta lurraldean adierazgarrienak diren antolakuntzek proposatuta (beti ere tutela egiten duen administrazioak horrelakotzat ezarrita daudenean) egongo dira.
- **C) TALDEA:** Gipuzkoako Ganberan borondatezko ekarpenik handiena egiten duten enpresetako hamabi (12) eskuorde.

Osoko Bilkurak lehendakaria hautatuko du bere kideen artean.

Batzorde Exekutiboa Gipuzkoako Ganberaren kudeaketa, administrazio eta proposamen organo iraunkorra da. Batzorde Exekutiboa honako hauek osatzen dute: Lehendakaritzak, Lehen eta Bigarren Lehendakariordetzako titularrek, Diruzaintzak eta Osoko Bilkurak hautatutako sei eta zortzi bokalek.

3. HAUTESKUNDE-PROZESUA

Gipuzkoako Ganberako Osoko Bilkuretako kideak lau urterik behin berritzen dira. Hauteskunde-prozesuko funtsezko elementuak hauek dira:

1. Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak hauteskunde-prozesuaren irekiera ezartzen du; prozesu hori Ministro- Aginduaren bidez hasten da. 2025eko abenduaren 4an ECM/1382/2025 Agindua argitaratu zen, azaroaren 28koa, eta ezarri zuen hauteskunde-prozesua irekita zegoela 2025eko abenduaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra arte.
2. Jarraian, irekiera argitaratu eta bost egunera, jendaurrean erakusten da Ganberetako hauteskunde-errolda; errolda horretan hautesle guztiak daude. Beraz, erroldan daude enpresak, eskuordetuta dauden sektore guztien arabera duten garrantzi ekonomiko erlatiboa kontuan hartuta Taldeka eta Kategoriaka sailkatuta.
3. Hauteskunde-prozesuaren amaierarako ezarrita dagoen mugaeguna kontuan hartuta, tutela egiten duten administrazioek Merkataritza Ganberen hauteskundeak deitu beharko dituzte. Gure kasuan ardura hori Turismo eta Merkataritza Sailordetzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Ganberen hauteskunde-deialdiaren ebazpena ematea. Ebazpen hori hauteskunde-prozesu osoa 2027ko abenduaren 31 aurretik amaituta edukitzeko denbora nahikoarekin emango da.
4. Osoko Bilkurako A taldeko kideak sufragio aske, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez hautatzen dira enpresa guztien artean.
5. B taldeko kideak tutela egiten duen administrazioak izendatzen dituen enpresa-antolakuntzek proposatzen dituzte. Izendatua enpresa-antolakuntza bakarra bada proposamen horrek izendapena eragingo du. Eta bi enpresa-antolakuntza edo gehiago izendatzen badira botazioa egingo da.
6. Azkenik, agintaldi bakoitzerako ekarpen ekonomikorik handiena egiten duten hamabi enpresak hautatuko dira.
7. Osoko Bilkurak Merkataritza Ganberako lehendakaria eta Batzorde Exekutiboa hautatzen ditu.

4. ARAUDIA

Gipuzkoako Ganberaren Osoko Bilkura berritzeko hauteskunde-prozesua erregulatzen duen araudia honako hauetan dago ezarrita: apirilaren 1eko 4/2014 Legea, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialena (EAO, 2014ko apirilaren 2koa); maiatzaren 26ko 78/2015 Dekretua, Merkataritza, Industria,

Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta gobernu-organoak arautzekoa, (EHAA, 2015eko uztailaren 3koa); Korporazio honen Barne-Araubideko Arautegia eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzak egokia den unean emango duen Ebazpena.

5. GIPUZKOAKO GANBERAREN HAUTESKUNDE-ERROLDA

Gipuzkoako Ganbararen hauteskunde-eroldaren barruan daude sartuta Gipuzkoako Lurralde Historikoan merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazio jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. Gipuzkoako Ganberako kideak izango dira zirkunskripzio horretan establezimenduak, ordezkariak edo agentziak badituzte.

Hauteskunde-eroldako hautesleak bost Taldetan sailkatuta daude, era honetan:

ATALAK	KIDEAK
1. INDUSTRIA, ENERGIA ETA BESTE JARDUERA BATZUK	16
2. ERAIKUNTZA	2
3. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	6
4. BIDALKETA ETA GARRAIOA	2
5. ZERBITZUAK	14
GUZTIRA	40

Era berean, Talde bakoitza Kategoriaka banatzen da, bere jarduera ekonomikoaren arabera eta kolektiboen garrantzi ekonomikoaren arabera. Gipuzkoako Ganberako hautesle-eroldaren egitura **2. eranskinean** agertzen da.

Gipuzkoako Ganberaren hauteskunde-errola erakundearen egoitzan erakutsiko da, Tolosa hiribidea, 75, 20018, Donostia, Gipuzkoa, eta baita web orrian ere (www.camaragipuzkoa.com).

Errola erakusteko eta horretan sartzeko edo horretatik kanpo uzteko erreklamazioen epeak ezartzen dituen hauteskunde-egutegia **1. eranskinean** ematen da.

1. ERANSKINA

GERTAERAK	Erreferentzia -data
HAUTESKUNDE-PROZESUAREN IREKIERA. ECM/1382/2025 Agindua, azaroaren 28koa. Apirilaren 1eko 4/2014 Legearen 18. Artikulua. Ministerioak, AAEEK kontsultatu ondoren, hauteskunde-prozesuaren irekiera ezarriko du.	2025-12-04
HAUTESKUNDE-ERROLDAREN ERAKUSKETAREN HASIERA ETA ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO EPEA. Hauteskunde-prozesua ireki eta 5 egunetara (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.1. artikulua).	2025-12-15
ERROLDA ERAKUSTEKO EPEAREN AMAIERA. Egutegiko 20 egun (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.1. artikulua).	2026-01-03
GIPUZKOAKO GANBERAKO BATZORDE EXEKUTIBOAN ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA. Epea iraungi eta 10 egun bete arte (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.1. artikulua).	2026-01-19
BATZORDE EXEKUTIBOAK ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO EPEAREN AMAIERA. 5 egun (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.2. artikulua). Isiltasun positiboa.	2026-01-27
SAILORDETZAN ERREKLAMAZIOA AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA. 15 egun (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.2. artikulua).	2026-02-18
Batzorde Exekutiboaren ebazpenen aurka SAILORDETZAN AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOEN EBAZPENEA. (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.2. artikulua). 15 egun. Isiltasun negatiboa.	2026-03-11
SAILORDETZAK HAUTESKUNDEAK DEITZEA	
HAUTESKUNDE-PROZESUAREN AMAIERA. (Azaroaren 28ko ECM/1382/2025 Agindua)	2027-12-31

2. ERANSKINA

Taldeak / Kategoriak		Esleitutako bokalak
Taldea 1.- INDUSTRIA, ENERGIA ETA BESTE JARDUERA BATZUK		16
Kategoria 1	Energia eta ura	1
Kategoria 2	Metalezko eta ez-metaliko mineralen erauzketa, metalen ekoizpena eta lehen mailako prozesamendua, eta kimika	1
Kategoria 3	Metalezko produktuen fabrikazioa	4
Kategoria 4	Makina eta ekipo mekaniko, elektriko eta elektronikoen eraikuntza	5
Kategoria 5	Garraio-ekipoen eraikuntza	1
Kategoria 6	Elikagaien eta edarien industriak	1
Kategoria 7	Ehungintza, larru, oinetako, egur, kortxo, altzari eta beste manufaktura industriak	1
Kategoria 8	Paperaren eta paper-produktuen fabrikazio-industriak, eta arte grafikoak eta argitalpenak	1
Kategoria 9	Kautxu eta plastikoen prozesatzeko industriak	1
Taldea 2.- ERAIKUNTZA		2
Kategoria 10	Eraikuntza	2
Taldea 3.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA		6
Kategoria 11	Merkataritza, konponketa eta merkataritza agenteak	4
Kategoria 12	Ostalaritza eta jatetxeak	2
Taldea 4.- BIDALKETA ETA GARRAIOA		2
Kategoria 13	Nabigazioa eta Garraioa	2
Taldea 5.- ZERBITZUAK		14
Kategoria 14	Finantza erakundeak eta aseguruak	1
Kategoria 15	Jarduera juridikoak, aholkularitza, ikerketa, publizitatea eta alokairuak	6
Kategoria 16	Informazio eta Komunikazio Teknologiak, ikus-entzunezko eta argitalpen industria	1
Kategoria 17	Beste zerbitzu batzuk	6